

**13/2023 TXOSTENA, IRAILAREN 29KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU  
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DONOSTIA HIRIKO BIDE-GARBIKETAKO ZERBITZU-KONTRATUAREN  
KOSTU-EGITURA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA****I.- AURREKARIAK.**

2023ko abuztuaren 22an, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistrora Donostiako Udalaren eskaera bat iritsi zen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendua, eta bertan eskatzen zion Donostia hiriko bide-garbiketako zerbitzu-kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostena egin zezala, Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari jarraikiz.

Horretarako, lizitazioaren xede den zerbitzuaren oinarritzko ezaugarriei buruzko txostena eman du. Txostenean azaltzen denez, helburua da Donostia hiriko udalerrian garbiketa-zerbitzuak ematea, honako hauek barne direla:

- Bide publikoen garbiketa.
- Azoka eta azoka txikiak garbitzea
- Parkeak eta lorategi-eremuak garbitzea
- Festa eta ekitaldi publikoen ondorengo garbiketa
- Pintadak, kartelak eta abar garbitzea.
- Kirol eta haurrentzako instalazio irekiak garbitzea
- Urmaelak garbitzea
- Bide publikotik animalia hilak erretiratzea
- Elurte-plana
- Aparteko garbiketa eta lanak, eta beste zeregin osagarriak, beharrezko direnak adierazitako zerbitzuak preskripzio teknikoaren agirian ezarritako baldintzetan emateko.

10 urtekoa da kontratua egikaritzeko epea.

SPKLren 29.4 artikularen bigarren paragrafoaren arabera, kontratu-lizitazioaren administrazio-klausulen agirietan aurreikusten da prezioen berrikuspena aplikatzea, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoa.

Halaber, 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari jarraikiz, sektoreko 5 operadore ekonomikori eskatu zitzairen kostuen egitura bidaltzeko, eta, jasotako informazioan oinarrituta, kostuen egituraren proposamena egin zen eta jendaurreko informazioaren izapidea egin zen, eta ez da inolako alegaziorik egon (2022ko martxoaren 2ko GAO, 41. zk.).

## **II.- ESKUMENA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuari hamabigarren xedapen gehigarria gehitu zaio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea bigarrenez aldatzeko abenduaren 13ko 154/2022 Dekretuaren bidez (abenduaren 28ko EHAA, 247. zk.).

Hamabigarren xedapen gehigarri horretan jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokiola Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikularen arabera nahitaezko txostena egitea. Horretarako, hogei eguneko epea izango du, toki-erakundeen eta haren mendeko organismoen edo entitateen txostenaren eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Irismenari dagokionez, txostena Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari dagozkion alderdietara mugatzen da.

## **III.- JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK**

Lehenik eta behin, adierazi behar da kontratu publikoetako prezioen berrikuspenaren erregulazioa (zeina Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasota dagoen –Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena–) Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legean xedatutakora egokitzen dela. Ildo horretan, prezio-berrikuspena ez da

indize orokorren arabera, berriazko indizeen arabera baizik, eta indizeok, berriz, kontratatutako prestazioaren kostu-osagaiak adierazten diren formulen arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 103. artikulua arabera, sektore publikoko kontratuen prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrius daitezke, egoera jakin batzuetan, alde aurretik justifikatuta eta Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan (55/2017 ED) ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, 55/2017 EDaren 9. artikulua, «administrazio publikoen obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren sektore publikoko kontratuetan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikustea»ri buruzkoak, xedatzen du kontratu horien prezioak aldizka eta aurrez zehazturik berrikusi behar direla, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, zenbatekoaren ehuneko 20 bete ondoren, betiere kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada, eta hala aurreikuspenen bada baldintza-agirietan, zeinek aplikatu behar den berrikuspen-formula zehaztuko baitute.

Maiatzaren 8ko 11/2023 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenak, zeinaren bidez aldatzen baita Sektore publikoaren kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea – Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena– artikulua batzuk aldatzen ditu partzialki, prezio-berrikuspena aplikatzeko hasierako epea kasu 103. artikulua apartatua honela geratu da idatzita:

*«5. Energia-hornidurako kontratuetan izan ezik, eta hala badagokio, sektore publikoko kontratuen prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena kapitulu honetan ezarritako baldintzetan egingo da, kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gutxienez egikaritu denean eta formalizatu zenetik urtebete igaro denean. Beraz, egikaritutako lehenengo ehuneko 20a eta kontratua formalizatu zenetik igarotako lehen urtea berrikuspenetik kanpo geldituko dira.*

*Zerbitzu-emakidako kontratuetan, hala eta guztiz ere, kontratua egikaritu izanaren ehunekoari buruzko baldintza ez da eskatzekoa izango aurrez zehaztutako aldizkako berrikuspenari ekiteko.»*

Halaber, artikulua kontratazio-espeditari erantsitako memoriak izan behar duen edukia finkatzen du, baita baldintza-agirietan zehaztu behar diren prezioen berrikuspenari buruzko aurreikuspenak ere, eta ezartzen du berrikuspena ezin dela kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea pasa ostean egin.



Aipatutako 55/2017 EDaren 9. artikulua 7. apartatuaren arabera, bost milioi euroko edo gehiagoko prezioa duten kontratuetarako, kontratazio-organoak kostuen egitura baloratzeko nahitaezko txosten bat sartu behar du kontratazio-espeditentean.

Aipatutako 55/2017 EDaren 3., 4. eta 7. artikuluek prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena eta formula aplikagarrien zehaztapena arautzen duten printzipio eta arau orokorrak jasotzen dituzte, besteak beste:

- Jarduera gauzatzeko edo kontratuaren xedea betetzeko kostu zuzeneko, ezinbesteko eta esanguratsuekiko (>% 1) lotura.
- Ondorioz, berrikuspenak gorantz edo beherantz egin ahal izango dira, kostu horien aldakuntzaren arabera.
- Eskulanaren kostua kontuan hartzen bada, aldakuntza ezingo da izan sektore publikoaren zerbitzura dauden langileena baino handiagoa, Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritakoaren arabera.
- Ez dira inolaz ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.
- Operadore ekonomikoaren kontrolpean ez dauden kostuen aldaketak soilik sartu ahal izango dira berrikuspen-erregimenetan. Kostuen aldaketak operadorearen kontrolpean daudela ulertuko da zenbait praktiken bidez saihestu ahal izan direnean (adibidez, hornitzailez aldatuta)
- «Enpresaren efizientzia eta kudeaketa ona»ren printzipioaren arabera, berrikuspen-erregimenak ondo kudeatutako enpresa efiziente batek dagokion jarduera garatzeko jasan beharko lukeen kostu-egitura hartuko du erreferentzia gisa, aplikatu beharreko araudiak edo kontratuaren klausulek eskatzen duten gutxieneko kalitate-mailarekin.
- Era berean, espeditentean derrigor txertatuko den memoria batean justifikatu beharko da kontratuaren kalitate-baldintzak eta funtsezko betebeharrak betetzen direla. Hori ezinbestean egin beharko da berrikuspena egin ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokio hura bidaltzea. Helburu horretarako, kontratazio-organoak honakoak egin behar ditu: a) Sektoreko bost operadore ekonomikori beren kostuen egitura bidali diezaioten eskatu; b) Jardueraren kostuen egituraren proposamen bat egin, ahal den neurrian, operadore ekonomikoen erantzunetako informazioa baliatuz; c) 20 egunez, kostuen egituraren proposamena jendaurrean jarri; d) Kostuen egituraren proposamena aldeztu aurretik aipatutako Batzorde Iraunkorrari bidali.

SPKLren 103. artikulua 2. apartatuaren arabera, «prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan. Epe hori aipatutako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu da».

Horri dagokionez, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikulua Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen du, eta inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko formula matematikoa zehazten du:

$$\sum_{t=0}^n \frac{FC_t}{(1+b)^t} \geq 0$$

Bertan:

- t zenbaki osotan neurtutako urteak dira.

- FCt t urtean espero den kutzako fluxua da.

- b deskontu-tasa da; balioa izango da azken sei hilabeteetan Estatuaren hamar urterako zorrak bigarren mailako merkatuan batez beste izandako errendimendua, oinarritzko 200 puntuko diferentzian gehituta.

#### IV. DONOSTIA HIRIKO BIDE-GARBIKETAKO ZERBITZU-KONTRATUAREN KOSTU-EGITURAREN ANALISIA

##### IV.1. Aurkeztutako dokumentazioa

Donostiako Udalak 2023/002 espedienteari lotutako agiri hauek igorri dizkio Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- 30/2022/11 Txostena, "Donostia hiriko bide-garbiketako zerbitzu-kontratua" lizitatzeko zerbitzuaren oinarritzko ezaugarri buruzkoa.
- 27/2022/12 Donostia hiriko kale-garbiketako zerbitzuaren prezioak berrikusteko formula zehazteko izapideak. TGBren onarpena.
- 02/2023/01 Kostu-egiturari buruzko informazio-eskaerak.
- 05/2023/01 Kostu-egiturari buruzko informazio-eskaeren erantzunak.
- 26/2023/01 Kotsultatutako operadore ekonomikoen erantzunak, hartu-agiriarekin.
- 15/2023/06 Kostu-egituraren proposamena eta kontratuaren prezioak berrikusteko formula.

- 20/2023/06 Azterketa ekonomikoa.
- 11/2023/07 Kostu-egituraren proposamena TGBren onarpena.
- 17/2023/07 GAOko argitalpena.  
Udaletxeko iragarki-taula eta ediktuetako argitalpena.
- 27/2023/07 Espedientea ikusteko pertsonatutako interesdunaren egiaztatzea.
- 18/2023/08 Alegazio publikoen epea amaitu ondoren alegaziorik jaso ez izanaren agiria.  
Donostiako Udaleko Osoko Bilkurako idazkari nagusiaren ziurtagiria.

#### IV.2. Azterlan ekonomikoaren berrikuspena

Udalak aurkeztutako azterlan ekonomiko laburrak lizitazioaren etorkizuneko pleguetan sartu beharreko urteko oinarrizko aurrekontuaren banakapena azaltzen du taula honetan (BEZik gabe):

LIZITAZIOAREN URTEKO OINARRIZKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA			
<b>ZUZENEKO KOSTUAK</b>		<b>13.084.513,37</b>	89,09 %
I	Langileen kostuak	10.178.925,56 €	
II	Erregaien eta lubrifikatzailen kostuak	802.140,87	
III	Mantentze- eta konpontze-zerbitzuen kostuak:	539.003,18 €	
IV	Inbertsioa berreskuratzeko zenbatekoa	1.102.120,23 €	
V	Beste zuzeneko kostu batzuk*	462.323,53 €	
<b>ZEHARKAKO KOSTUAK</b>		<b>1.601.591,90 €</b>	10,91 %
VI	Zeharkako gastu orokorrak	597.217,44 €	
VII	Mozkin industrialak:	1.004.374,46 €	
<b>GUZTIRA (BEZik gabe)</b>		<b>14.686.105,27</b>	% 100
<p>* Bestelako zuzeneko kostuen barnean hauek daude: alokairuak, aseguruak, mantentze-lanak, instalazioak, ekipo informatikoak eta komunikazioa, jantziak, erremintak, material osagarria, esanguratsua ez diren beste kostu batzuk</p>			

Nolanahi ere, 2.1.3. apartatuan, kalkulu-hipotesi orokorreari buruzkoan, azterlan hau zerbitzua kontratatzeke etorkizuneko espedienterako proposamen gisa planteatzen da; beraz, abiapuntuko datuak (aurrekontuaren eta inbertsioen kalkuluak eta itzultze-denbora kalkulatzeko taula) ez dira behin betikoak txosten hau ematen den egunean.

Aurreko taulako kostuen osagai hauek justifikatu eta baloratzen dira:

- Zerbitzuaren urteko kostuaren azterketa, honako hauek deskribatuta:
  - Langile-kostuak, zerbitzurako behar orientagarrien taula aurkeztu gabe. 10.178.925,56 €-ko zenbatekoa ezarri da, aurreko kontratuetako esperientziaren eta 2022ko zerbitzuaren kostuaren arabera, bai eta langile-kostuen batez besteko balioa ere erreferentziazko enpresen kostu-egituren arabera.
  - Erregaien eta lubrifikatzaileen kostuak, aurreko udal-kontratuetan izandako esperientziaren eta kontsumoaren eta erregai-prezioen bilakaeraren kalkularen arabera, kostu horiek murriztuko lituzketen efizientzia-proposamenak barne. Ez da aurkeztu hobekuntza horien azterketarik.
  - Mantentze- eta konpontze-zerbitzuen kostuak, aurreko udal-kontratuetan izandako esperientziaren eta kostuaren bilakaeraren arabera kalkulatuak, kostu horiek murriztuko lituzketen efizientzia-proposamenak barne. Ez da aurkeztu hobekuntza horien azterketarik.
  - Beste zuzeneko kostuetarako eta gastu orokorretarako kantitate finko gisa, 1.059.540,97 €, honela banatuta: 462.323,53 € (% 43,63), zuzeneko kostuak, eta 597.217,44 € (% 56,37).gastu orokorrak. Kostu horiek ezin dira berrikusi, eta erreferentziazko kostuen egituraren batez besteko balioetara egokituta daude gutxi gorabehera.
  - Zenbatetsitako mozkin industrialak, zenbateko finko gisa: 1.004.374,46 €. Ez da adierazi nola lortzen den kopuru hori.

- Zerbitzua egiteko hasierako inbertsio-kostuen zenbatespena.

2022ko azaroko zerbitzuaren kostuen eta 2023ko ekaineko azterketa ekonomikoaren hasierako zenbatespenaren artean, handitu egin da hasierako inbertsio zenbatetsiaren zenbatekoa: 6.111.000,00 €-tik (% 4,11ko deskontu-tasarako) 8.416.834,00 €-ra (% 5,228ko deskontu-tasarako).

Era berean, kopuru horren eta lizitazioaren baldintza-agirietan justifikatu beharreko inbertsioaren itzultze-denboraren behin betiko taularen artean, deskontu-tasa alda daiteke, bai eta kontsiderazio berriak aplikatu ere, hipotesi orokorretan adierazten den bezala.

10 urteko amortizazio-aldirako, 8.416.834,00 euroko inbertsioaren gainean 1.102.120,23 euroko amortizazio-kostu finkoa kalkulatzeko da.

### IV.3. Kostu-egitura berrikustea

55/2019 EDan jasotako enpresen efizientzia eta kudeaketa onaren printzipioei buruzko 4. artikulua eta 9. artikulua 7. apartatuaren b) letra justifikatzeko, operadore ekonomikoen kostu-egiturari buruzko batez besteko datuak Donostiako Udalak aurretik egindako kostu-egiturarekin konparatzen dira.

Udalak sektoreko sei enpresari egin die kontsulta, proposatutako kostu-egituraren arabera datuak lortzeko. Datuak babestu beharra dela eta, erantzun bakoitzaren kostu-egituraren ehunekoak modu anonimoan adierazi dira.

Operadoreen erantzunen ondoren, haietako bi kontuan ez hartzea erabaki da, arrazoi hauengatik:

- operadoreetako batek ez dio jarraitu proposatutako kostu-egiturari.
- operadoreetako batek ematen dituen ehunekoak asko desbideratzen dira batez bestekotik.

Hala ere, uste dugu lau enpresak aurkeztutako kostu-egiturak lagin egokia direla, eta batez bestekoak nahikoa adierazle direla efizientzia-printzipioa justifikatzeko.

Batez besteko balioekiko konparazio-taula honako hau da:

OPERADORE EKONOMIKOEN KOSTU-EGITUREN TAULA KONPARATIBOA				
	1	2	3	4
	%-a	%-a	%-a	%-a
I Eskulanaren kostua guztira (Soldatak, Gizarte Segurantzako kuotak, kalte-ordainak, ekarpenak...)	62,52	75.5	75	62
II Erregaien eta lubrifikatzaileen kostuak	3,43	5	5.5	5
III Mantentze- eta konpontze-zerbitzuen kostuak:	4,55	4.5	4.5	7
IV Inbertsioen kostua Hasierako inbertsioa errentagarritasun-tasa jakin batekin berreskuratzeko urteko zenbatekoa.	6,89	4	5	8
V Bestelako zuzeneko kostuen barnean daude: alokairuak, aseguruak, mantentze-lanak, instalazioak, ekipo informatikoak eta komunikazioa, jantziak, erremintak, material osagarria, esanguratsuak ez diren beste kostu batzuk...	6,65	2.5	3	6
VI Zeharkako gastu orokorrak	10,92	4.5	5	6



VII Mozkin industrialia:		5,04	2	2	6
	GUZTIRA	100	100	100	100

KOSTU-EGITURA		Batez besteko balioa operadore ekonomikoak %	Amaierako kostu-egitura (Udala) Ehunekoa
I	Eskulanaren kostua guztira	68,76	69.03
II	Erregaien eta lubrifikatzaileen kostuak	4,73	5.10
III	Mantentze- eta konpontze-zerbitzuen kostuak:	5,14	4.41
IV	Inbertsioen kostua	5,97	6.74
V	Bestelako zuzeneko kostuak	4,54	4.09
VI	Zeharkako gastu orokorrak	6,61	5.33
VII	Mozkin industrialia:	3,76	5.30
	GUZTIRA	100	100

55/2019 EDn jasotako enpresen efizientzia eta kudeaketa onaren printzipioei buruzko 4. artikulua eta 9. artikularen 7. apartatuaren b) letra justifikatzeko, operadore ekonomikoen kostu-egiturari buruzko batez besteko datuak Donostiako Udalak aurretik egindako kostu-egiturarekin konparatzen dira.

Ikusi da udalaren amaierako kostu-egitura aztertutako kasuen batez bestekoaren antzekoa dela, eta desbideratze txikiak aurkeztutako memorian justifikatu dira. Kostu-egituraren proposamena zuzena da, kontuan hartuta: egituran egindako arrazoizko desagregazioa, analisi ekonomikoa, hondakinak biltzeko sektorean ondo kokatutako operadore ekonomikoen kostu-egituren batez bestekoari egindako erreferentziak eta Donostiako Udalaren antzeko kontratuen kudeaketan izandako aurretiazko esperientzia.

Ikusi da kostu osoarekiko pisu erlatibo handiena langileen gastuek hartzen dutela: %69,03). Udalak maileguaren amortizazioetarako ezarritako batez besteko kostua % 6,74koa da, eta inbertsio-kostu handia da.

#### IV.6. Berrikustekoak diren eta ez diren kostuak

Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, berrikus daitezkeen kostuetan banakako prezio edo indize espezifiko bat izango du formulari sartu beharreko kostu-osagai bakoitzak, bilakaera islatzeko. Kontratuaren behin-behineko PTaren 3.4

apartatuan prezioen berrikuspenari lotutako kostu gisa definitzen dira honako hauek betetzen dituztenak:

- Jarduerari lotutako zuzeneko loturaren araua
- Zerbitzua egiteko nahitaezkotasunaren araua
- Desbideratze handiak izan ditzaketen kostuak dira, eta ziurrenik, desbideratzeok denboran iraungo dute
- Kostu handiak izatea (> jardueraren kostuen egituraren % 1)
- Kontratatistak kontrolatu ezin dituen kostuak dira

Ez dira berrikusiko amortizazioekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edo egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.

Azkenik, Donostiako Udalak berrikustekotzat jotzen diren kostuak justifikatu ditu, gastuen bilakaerari buruzko grafiko eta analisiak eta intzidentzia-parametroak aurkeztuz. Hona kostu horiek:

**A** \_\_\_\_ Langileen kostuak. (%69,03)

Goranzko bilakaera honako hauen kostuetan: langileak, lan-kostu harmonizatuaren indizearekin (orduko kostu osoa), ur-hornidura, saneamendu-jarduera, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea. 2011-2021 aldia

**B** \_\_\_\_ Erregaien hornidura-kostuak. (%5,10)

Ibilgailu pertsonaletarako erregaien eta lubrifikatzailen prezioen aldakortasuna, KPIH-Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuko grafikoaren arabera. 2011ko urtarriletik 2022ko urtarrilera arteko aldia.

**C** \_\_\_\_ Ibilgailuen eta edukiontzien mantentze-lanen kostuak. (%4,41)

Ibilgailu pertsonalen mantentze-lanen eta konponketaren prezioen aldakortasuna, KPIH-Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuko grafikoaren arabera. 2011ko urtarriletik 2022ko urtarrilera arteko aldia.

**D** \_\_\_\_ Berrikusteko ez diren kostuak. (% 56,74)

#### **IV.7. Prezioak berrikustea**

##### **Prezioak berrikusteko formula**

Donostiako Udalak prezioak berrikusteko formula hau proposatu du:

$$P_t = K_t * P_{t-1}$$

Bertan:

-  $P_t = t$  urtean berrikusitako kontratuaren urteko zenbatekoa da.

- $K_t = t$  urteari aplikatutako berrikuspen-koefizientea da.
- $P_{t-1}$  = Kontratuak  $t-1$  urtean izandako prezioa da.

hau da berrikuspen-koefizienteak kalkulatzeko proposatutako formula polinomikoa:

$$K_t = 0,6903*(1+P_t) + 0,05010*(1+CL_t) + 0,0441*(1+M_t) + 0,2146$$

Bertan:

- $t$  = Berrikuspena egiten den urtea da, kontuan hartuta zerbitzu-kontratuan kontratuaren lehen % 20a berrikuspenetik kanpo geratzen dela.
- $K_t$  = Aurreko urteko prezioari aplikatu beharreko berrikuspenaren %-a  $t$  bakoitzeko.
- $P_t$  = eskulanaren kostuen aldakuntzaren %-a  $t$  urterako.
- $CL_t$  = erregai eta lubrifikatzaileen kostuen aldakuntzaren %-a  $t$  urterako.
- $M_t$  = mantentze-lanen eta konponketa kostuen aldakuntzaren %-a  $t$  urterako.

Egiaztatuta dago formularen balioak honako hauek direla  $A + B + C + D = 1$

## 1. OHARRA

Donostiako Udalak berrikuspen-indizeen erreferentzia-epeak segidako urteen aldakuntza gisa proposatu ditu, eta ez kontratua egin zen egunarekiko.

SPKLren 103. artikularen 4. apartatuaren arabera:

«Administrazio-klausula partikularren agiriak, halako kasuetan, berrikusteko aplikatu beharreko formula zehaztu beharko du; aldezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta kontratuan bertan zehaztuko du noiz berrikusiko diren prezioak, **kontratua egiteko eguna kontuan hartuta**, baldin eta kontratua eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean egiten bada; kontratua geroago egiten bada, hiru hilabeteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta zehaztuko da noiz berrikusi prezioak».

Planteamendu horrekin, hau izango da formula zuzena:  $P_t = K_t * P_o$

Bertan:

- $P_t = t$  urtean berrikusitako kontratuaren urteko zenbatekoa da.
- $K_t = t$  urteari aplikatutako berrikuspen-koefizientea da.
- $P_o$  = kontratua adjudikatzen den hilabete eta urteko kontratuaren aurrekontua da, SPKLren 103. artikuluko 4. apartatuaren arabera data-baldintzekin:

### Prezioak berrikusteko indizeak

Honako puntu hauek egiaztatzen dira aplikatzen diren indizeen datuen jatorrian:

- Eskuragarriak diren datu irekien jatorria. Urteko berrikuspenetan (gorantz edo beherantz izan daitezke) indizeetarako kontsultatu behar dira, eta kanpoan uzten dituzte zerga-aldakuntzen ondorioak (indize harmonizatuak eta zerga iraunkorrei atxikitakoak proposatu dira).
- Berrikuspen-epeen erreferentzia sartu da SPKLren 103. artikuluko 4. apartatua oinarri hartuta.
- 55/2017 EDaren 5. artikulua aipatzen da, non eskulanaren kostuak mugatzen diren.  
*Errege Dekretu honetan xedatutakoaren arabera, eskulanaren kostuak berrikusitako baliora eraman daitezkeenean, kostu horiei jasanaraz dakiekeen igoerak ezin izango du gainditu sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak izandako igoera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeen arabera.*

Egiaztatzen da behar bezala identifikatu eta deskribatzen direla prezioak berrikusteko formularen sartutako kostuei aplikatu beharreko berrikuspen-indizeak:

**A** \_\_\_\_\_ Eskulana (P t-1)

Berrikuspen-dataren aurreko urtean "itundutako batez besteko soldata-aldakuntzaren" %-a proposatzen da indize gisa.

\_Publikatzea: Lan eta Gizarte Gaierako Ministerioa

\_Helbidea: <https://expinterweb.mites.gob.es/series/>

\_Bilatzailea: *Serie nagusiak >Estatistikak > Lan-baldintzak eta harremanak> Laneko hitzarmen kolektiboak>*

\_Kontsulta-datuak: *Analisiaren aldagaia: Itundutako batez besteko soldata-aldakuntza> Sailkapenaren aldagaia: Jarduera-eremua eta -bereizketa> Sailkapenaren balio aldagarria: Enpresaren goiko eremua > CNAE-2009 banaketa: 38.: Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; balorizatzea > Maiztasuna Urtean behin*

**B** \_\_\_\_\_ Erregaiak eta lubrifikatzaileak (CL t-1)

\_Publikatzea: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

\_Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23708&L=0>

\_Bilatzailea: *INEbase >Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak> Kontsumo-prezioen indize harmonizatua> Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0722 Erregaiak eta lubrifikatzaileak ibilgailu pertsonaletarako > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

**C** \_\_\_\_\_ Mantentze-lanak eta konponketak (M t-1)

\_Publikatzea: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

\_Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23708>

\_Bilatzailea: *INEbase > Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak > Kontsumo-prezioen indize harmonizatua > Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0723 Ibilgailu pertsonalen mantentze-lanak eta konponketa > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

Indizeen bilatzaileak zuzenak dira kasu bakoitzean; prezioak berrikusteko erabili beharreko formularen arabera aukeratu behar da datu-mota.

## 2. OHARRA

1. OHARRA berretsi da berrikuspen-indizeen erreferentzia-epetegi dagokienez, segidako urteen aldakuntza gisa proposatu direlako, eta ez kontratua egin zen egunarekiko.

Beraz, berrikuspen-indizeak berrikusi eta identifikatzeko honako formula hau gomendatzen da:

$$K_t = 0,5674 * (S_t / S_o) + 0,0924 * (M_t / M_o) + 0,1039 * (E_t / E_o) + 0,2363$$

non,

- $S_t$ : estatu-mailan hondakinen bilketa-sektorean itundutako batez besteko soldata-aldakuntza, kontratuaren prezioa berrikusi den urtean.
- $S_o$ : estatu-mailan hondakinen bilketa-sektorean itundutako batez besteko soldata-aldakuntza, kontratua egin den urtean.

Helbidea: <https://expinterweb.mites.gob.es/series/>

Kokapena: *Serie nagusiak > Estatistikak > Lan-baldintzak eta harremanak > Laneko hitzarmen kolektiboak >*

Kontsulta-datuak: *Analisiaren aldagaia: Itundutako batez besteko soldata-aldakuntza > Sailkapenaren aldagaia: Jarduera-eremua eta -bereizketa > Sailkapenaren balio aldagarria: Enpresaren goiko eremua > CNAE-2009 banaketa: 38.: Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; balorizatzea > Maiztasuna Urtean behin*

- $M_t$ : «Mantentze-lanen eta konponketen zerbitzuak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, prezioa berrikusteko urteari dagokion hilabeterako
- $M_o$ : «Mantentze-lanen eta konponketen zerbitzuak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, kontratua egin den urteari dagokion hilabeterako.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase > Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak > Kontsumo-prezioen indize harmonizatua > Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0723 Ibilgailu pertsonalen mantentze-lanak eta konponketa > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

- E t: «Erregaiak eta lubrifikatzailak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, prezioa berrikusteko urtean dagokion hilabeterako

- E o: «Mantentze-lanen eta konponketen zerbitzuak» motaren indizearen estatu-mailako aldakuntza, kontratua egin den urtean dagokion hilabeterako.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase > Bizitza-maila eta -baldintzak (KPI) > Kontsumo- eta etxebizitza-prezioen indizeak > Kontsumo-prezioen indize harmonizatua > Kontsumo-prezioen indize harmonizatuak. Oinarria 2015*

Kontsulta-datuak: *Mota: 0722 Erregaiak eta lubrifikatzailak ibilgailu pertsonaletarako > Datu mota: Urteko aldakuntza > Aldia: Berrikuspena egin beharreko hilabetearen aurreko hilabetea.*

## IV.7. Inbertsioaren itzultze-denbora

### Inbertsioak

Memoria ekonomikoan azalduta dagoen moduan, hasierako inbertsio biribildua 8.416.834,00 € eurokoa izatea proposatu da (%5,228 deskontu-tasarako). Kontratua bukatzean inbertsio guztiak amortizatuta geratuko dira.

### Deskontu-tasaren balioa

Udalak aplikatutako deskontu-tasa % **5,228 da**. Zenbateko hori lortzeko, oinarrizko 200 puntu gehitzen zaizkio estatuaren 10 urterako zorrak bigarren mailako merkatuan azken 6 hilabeteetan batez beste izandako errendimenduari; datu horiek Espainiako Bankuak argitaratzen ditu. Kasu honetan, datuen jatorria eta batez bestekoa behar bezala aplikatzen dira 2023ko apiriletik 2022ko urrira bitartean (biak barne).

**22. MERCADOS SECUNDARIOS DE VALORES**  
**A) Deuda pública**
**22.8 Principales y cupones de deuda segregada del Estado**  
**Operaciones simples al contado. Conjunto del mercado**  
**Importes negociados y tipos de interés**

Millones de euros y porcentajes

	Importes negociados									Tipos de interés				
	Total	Hasta un año	De uno a dos años	De dos a tres años	De tres a cuatro años	De cuatro a seis años	De seis a diez años	De diez a veinte años	De veinte a treinta años	A tres años	A cinco años	A diez años	A quince años	A treinta años
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14
<b>19</b>	16 620	1 322	1 838	1 434	369	2 793	2 664	1 601	1 263	-0,21	0,04	0,63	-	2,19
<b>20</b>	7 258	1 005	1 041	283	288	1 296	586	838	1 035	-0,28	-0,09	0,39	0,74	1,23
<b>21</b>	5 320	1 077	344	320	432	445	462	725	1 514	-0,41	-0,21	0,41	0,81	1,40
<b>22</b>	9 342	478	490	947	757	1 057	634	3 134	1 527	1,26	1,58	2,26	2,52	2,82
<b>21 Dic</b>	529	138	50	66	22	33	17	101	102	-0,43	-0,21	0,44	0,76	1,28
<b>22 Ene</b>	771	81	23	26	11	43	18	238	30	-0,27	0,02	0,69	1,04	1,55
<b>Feb</b>	722	4	9	51	149	44	91	179	180	0,20	0,55	1,26	1,57	2,12
<b>Mar</b>	1 628	15	65	167	198	422	116	270	375	0,28	0,55	1,30	1,65	2,19
<b>Abr</b>	350	58	78	17	4	18	5	170	...	0,75	0,99	-	-	-
<b>May</b>	615	138	67	16	12	26	53	265	39	0,99	1,32	1,98	2,31	-
<b>Jun</b>	839	37	17	23	192	100	59	119	290	1,64	2,17	2,78	3,11	3,27
<b>Jul</b>	528	47	3	5	9	6	3	454	1	1,13	1,52	2,39	2,66	-
<b>Ago</b>	133	11	0	5	1	3	2	111	...	0,96	1,25	-	2,26	-
<b>Sep</b>	568	13	58	260	81	29	102	2	23	2,03	2,42	3,00	3,63	3,33
<b>Oct</b>	899	36	48	30	23	195	97	240	230	2,46	2,74	3,27	3,78	3,67
<b>Nov</b>	1 459	5	35	333	54	95	73	651	213	2,36	2,64	2,87	-	3,58
<b>Dic</b>	830	32	86	14	23	78	15	434	148	2,60	2,76	3,07	3,19	-
<b>23 Ene</b>	1 930	26	177	116	3	132	499	976	...	2,77	2,83	3,33	3,72	-
<b>Feb</b>	649	31	21	45	20	143	169	202	18	2,99	2,98	3,34	3,57	-
<b>Mar</b>	693	17	19	41	34	11	87	466	17	2,99	2,84	3,49	3,80	-
<b>Abr</b>	835	66	92	20	3	16	17	573	47	2,95	3,02	3,31	-	-
<b>May</b>	482	27	109	53	4	10	0	223	4	3,03	3,12	3,47	3,91	-
<b>Jun</b>	821	87	68	15	8	41	121	480	2	3,20	3,19	3,38	3,76	-
<b>Jul</b>	1 785	95	15	162	32	221	58	974	229	3,41	3,31	-	-	-

ITURRIA: *Espainiako Bankua > Hasiera > Estatistikak > Estatistikak argitalpenen arabera > Estatistika Aldizkaria > Finantza-merkatuak > 22. Balioen bigarren mailako merkatuak > Estatuaren zorra. Saldoak edukitzearen arabera > 22.7. Bereizi gabeko Estatuaren bonuak eta obligazioak Operazio sinpleak eskura. Merkatuaren multzoa, negoziatuen zenbatekoak eta interes-tasak.*

### 3. OHARRA

Inbertsioaren itzultze-taula eguneratu egin beharko litzateke, zerbitzua hasteko aurreikusitako benetako data kontuan hartuta, eta itzultze-denbora 10 urtetan mantentzen dela egiaztatu.

Gomendatzen da inbertsioak berreskuratzeko epea "b" deskontu-tasaren balioarekin kalkulatzea, lizitazioaren behin betiko agiriak argitaratu aurretik argitaratutako azken estatistikaren arabera eguneratuta.

### Kutxako fluxua

Itzultze-denboraren analisi-taula zenbateko finkoekin planteatzen da, eta ez du kontuan hartzen kobrantzen gehikuntza, kostuak berrikusteko aurreikuspenarekin, ezta ordainketen gehikuntzarik ere.

Taulak kontratistaren industria-mozkinaren kontzeptua jasotzen du ustiapen-jardueretan, urteko 1.004.374,46 euroko gastu finko zenbatetsi gisa.

#### 4. OHARRA

55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikulua araberaz, inbertsioaren berreskuratze-aldiaren formulaz, kutxako fluxuan kontuan hartu behar dira ustiapen-jarduerak eta inbertsio-jarduerak, honako ohar hauekin:

[...]«Ustiapen-jarduerekin sortutako kutxako fluxuaren barnean egongo dira, besteak beste, kanon eta zergen ondoriozko kobrantzak eta ordainketak, **eta kanpoan geratuko dira kontratistaren mozkinak zergapetzen dutenak.**

[...]**FCT-k ez ditu barnean hartuko finantzaketa-jarduerengatik sortutako kobrantzak eta ordainketak.**

Kutxako fluxuen zenbatespena egiteko ez dira kontuan hartuko FCT osatzen duten diru-balioen eguneraketak.

Hori dela-eta, inbertsioaren berreskuratze-denboraren taulan ezabatu egin behar da «ordainketak» apartatuaren finantza-gastuen kontzeptua, eta Donostiako Udalak berriz ere kalkulatu beharko luke.

#### **Inbertsioaren itzultze-denbora**

Azterketa ekonomikoaren arabera, 10 urtekoa izango da inbertsioaren itzultze-denbora, bat etorritik inbertsio-itzultzearen taularekin. SPKLren 29.4. eta 103. artikuluen arabera, lizitazioarekin zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratze aldia 5 urtetik gorakoa izatearen eta lizitazioaren zenbatekoaren ondorioz, **prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusi behar dira.** Kontratuko agiriek ere hori egin behar dela zehazten dute.

#### 5. OHARRA

Inbertsioaren itzultze-taula eguneratu egin beharko litzateke, inbertsioaren itzultze-epea egiaztatzeko, honako irizpide hauen arabera:

\_3. OHARRA

\_4. OHARRA

\_ 9/2017 Legearen 103. artikulua 5. apartatuaren aldaketa dela eta, zerbitzu-kontratua denez, ez da beharrezkoa egikaritutako zerbitzuaren % 20ko muga aplikatzea, eta berrikuspena kontratua formalizatu eta bigarren urtetik aurrera aplika daiteke.



## V.-ONDORIOAK

Horregatik guztiagatik, Donostia hiriko bide-garbiketako zerbitzu-kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko TXOSTENA ematen da, haren edukia txosten honetan jasotako oharretara egokitzeko.